



2017KO JARDUKETA

NAGUSIAK

2017ko urtea berrikuntzak markatuta egon da, izan ere, ticketing sistemetan eta informazio sistemetan berrikuntzak egin dira. Nabarmendu da, halaber, garrantzi handiko proiektu europarretan parte hartuta garraio iraunkorragoa eta irisgarriagoa sortzeari emandako bultzada. Proiektu horiek, gainera, proiektu estrategikoak garatzeko behar duen dirua ematen diote Dbusi, eta horrela Donostiako garraio publikoak erreferente izaten jarraitzen du nazioartean, berrikuntzari eta kalitateari dagokienez.

Dbusek 1.651.027 € eskuratzen ditu, bera partaide deneko proiektu europarrei esker.


Hauek dira 2017an egin diren jarduera nagusiak:

I BAT-BARIK-MUGI INTEROPERABILITATEAREN PROIEKTU PILOTUA

2017aren hasieran, Dbusek Bat-Barik-Mugi interoperabilitatearen proiektu pilotua jarri zuen abian bere autobusetan. Hasteko, 45 linean jarri zuen martxan, Donostiako autobus geltokia Antiguarekin, unibertsitateekin eta Aieterekin lotzen duen linean, alegia. Ondoren, Dbuseko autobus linea guztietara zabaldu zen.

Dbus da txartel horiek erabiltzen utzi duen lehen autobus operadorea Gipuzkoan. Horrela, BAT eta BARIK txartelak erabiltzen dituzten pertsonak ez dute bidai txartela eskudiruz ordaindu beharrik izango eta **tarifa hobaridunak eduki ahal izango dituzte.**

Bat, Barik eta Mugi, hau da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako garraio txartelen interoperabilitaterako proiektu pilotuan parte hartzen duenetako bat da Dbus. Hiru probitzien artean ordainketa sistema bakarra egoteko eskaera gero eta handiagoa izateak ekarri du proiektua sortzea, eta **etorkizunean Euskadiko bidaia txartel bakarra** ezartzea ahalbidetuko duen proba pilotu moduan planteatzen da proiektua.



2 MUGAZ GAINDIK GARRAIO PUBLIKO PRAKTIKOA ETA IRAUNKORRA BULTZATZEN DUEN E-MOBASK PROIEKTUKO PARTAIDETZA

Dbus eta Gipuzkoako Garraioko Lurralde Agintaritzza (GGLA), Euskal Kosta-Aturriko Mugikortasun Sindikatuarekin batera, E-MOBASK proiektu europarrean parte hartzen ari dira Euskal Eurohiriaren **garraio publikoaren erabilera** bultzatzeko eta errazteko.

Proiektuan parte hartzeko hiru erakundeek eratu duten partzuergoa onartua izan da POCTEFA 2014-2020 programaren deialdian. Europako lurralde lankidetzarako INTERREG tresnaren zati bat da programa hori.

Proiektuak 3 urteko iraupena edukiko du, 2018ko urtarrilaren 1ean hasita, eta 1.182.358€-ko diru laguntza eskuratuko du. Ekintzak Donostia-Irun-Baiona igarobidetik zehar egingo dira, Eskualdeen Garapenerako Europako Fondoak (FEDER) kofinantzatua.

**Interreg
POCTEFA**



E-MOBASKek **mugaz gairdiko eremuan** garraio publikoa hobetzea bilatzen du, garraioa **errazagoa, erakargarriagoa eta iraunkorragoa** izan dadin eta garraio publikoa erabiltzera bultzatzeko, ibilgailu pribatuaren aurretik. Horretarako, mugaz gairdiko erabiltzaileak hobeto informatuta egon daitezzen eta bidaia ordaintzea errazago eduki dezaten ekintzak planteatzen dira, bai eta iraunkorragoa eta ingurumenarekin errespetutsuagoa den garraioa bultzatzeko ekintzak ere.

E-MOBASKek hiru ardatz nagusi ditu:

. Informazioa hobetzea dauden komunikazio euskarrien bitartez.

. Ticketing integratua eta ordainketa modu berriak.

. Elektromugikortasuna eta garraio publikoaren energi efizientzia hobetzea.

Mugaz gairdiko garraio publikoa erabiltzea sustatzen saiatzen diren neurriak dira. Kalitateko zerbitzua eskaintzen dute, **garraioa ulerkorragoa, erabiltzen errazagoa eta iraunkorragoa izatea** ahalbidetuko duten hobekuntzetan oinarrituta.

3 MANBUS PROIEKTUAN PARTE HARTZEA, AUTOBUSEN MANTENIMENDURAKO LAGUNTZA SISTEMA

Dbus MANBUS proiektuan parte hartzen ari da TCMAN enpresarekin eta CEIT Azterketa eta Ikerketa Teknikoen Zentroarekin batera. 3 enpresek partzuergo bat eratu dute, **autobusen flotak zaintzeko prozesua optimizatzeko soluzio berritzaileak garatu eta baliozkotzeko asmoarekin**. Horretarako, aurreikusi da produktu berri bat garatzea, zeinak teknologia berriak txertatuta izango dituen, langileek autobus-flotetan egiten dituzten mantentze-lanak ahalik eta modu intuitiboenean egitea eduki dezaten.

Alde interesdun guztien ordezkariak daude partzuergoan (garatzailea, integratzailea, ustiatzailea, azken erabiltzailea), eta horiek garbi identifikatu dute zer arazo dauden mantentze-lanetako prozeduretan eta zer berrikuntza-premia dagoen.

Garatuko diren konponbideak **mugikortasunaren, informazio-sistemen, ikuspen artifizialaren, errealitate areagotuaeren eta ahots prozesamenduaren alorretan dauden teknologiarik berritzaileenetakoak dira**. Aurreikusi da, halaber, azken balidaziorako fase bat, merkatuan sartu aurretik, prototipoen garapen hutsa izan ez dadin.

Proiektu berritzailea da, Ekonomia eta Lehiakortasuneko Ministerioak **2015EKO LANKIDETZA ERRONKAK** programaren barruan finantzatuta eta **Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) kofinantzatuta**.

2015eko urriaren 1ean hasi zen proiektua, eta 30 hilabeteko iraupena du. Proiektu horrek **97.675,70 euro** ekarriko dizkio Dbusi.

4 EBSF-2 PROIEKTUKO PARTAIDETZA



2015ean ekin zitzaion **Europako Etorkizuneko Autobusen Sistemari buruzko EBSF 2 proiektuari** (European Bus System of the Future 2), eta bertan parte hartzen ari da Dbus, beste partaide batzuekin batera, hala nola CEIT Zentro Teknologikoa, IRIZAR autobus eta autokarren fabrikatzailea, UITP Garraio Publikoaren Nazioarteko Erakundea eta Datik eta Digimobee enpresa teknologikoak. Proiektuak 36 hilabeteko iraupena du (2015-2028), 42 bazkide ditu, eta 12 hiri pilotutan erakutsiko da. Donostia da hiri horietako bat.

Proiektu berritzailea da, Europar Batzordeak Horizon 2020 programaren baitan finantzatuta, eta bere helburua da **autobusak garraio publiko gisa duen efizientzia eta erakargarritasuna areagotzea**, etorkizuneko premiei erantzungo dieten **autobusen belaunaldi berri bat** diseinatuta.



EBSF-2 proiektuari buruzko jardunaldia Donostian

Azaroaren 29an, Donostiako Udalak proiektu honen gaineko jardunaldi bat egin zuen. Jardunaldian, proiektu honen baitan Donostiako eta Madrileko erakusleetan **garatutako soluzioak** aurkeztu ziren; **NONVIS sistema edo Eraginkortasunez gidatzen laguntzeko sistema**; tailerretan egiten diren flotaren mantentze lanak optimitzatzeko gailu adimendu baten garapena; **diesel autobusak gidatzean eraginkortasuna** neurtzeko adierazle berri baten garapena; etab.

5 IBILGAILU %100 ELEKTRIKOAK SARTZEA FLOTAN

Dbus “**REPLICATE**” proiektuan parte hartzen ari da, Donostiako Udalarekin batera, hiri adimentsuaren eredu bat garatzeko. Ekimenaren helburua da efizientzia energetikoa, mugikortasun iraunkorra eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) bultzatzea hirietan, eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea energiaren kontsumoa eta igorpen kutsatzaileak murrizteko.

“REPLICATE” proiektuan 36 bazkidek hartzen dute parte. Donostia, Bristol (Ingalaterra) eta Florentzia (Italia) hiri liderrak dira proiektuan, eta Essen (Alemania), Laussane (Suitza) eta Nilüfer (Turkia) hiriek, berriz, hiri jarraitzaile gisa hartzen dute parte. Hiri lider bakoitzak distritu bat aukeratu du neurriak ezartzeko; Donostiak Urumearen ibaiertza aukeratu du, eta 26-Amara-Martutene linea ibilgailu elektrikoekin eta hibridoekin funtzionatzen duen linea bihurtu da.



Europar Batasunak 11 milioi euro jarri ditu guztira proiekturako, eta horietatik 1.085.000€ Dbusentzat dira.

2015ean Irizarren lehen ibilgailu %100 elektrikoa 26 Amara-Martutene linean sartu ondoren, 2017an Dbusek **beste bi ibilgailu eta karga estazioak** erosi zituen.

Irizarrek fabrikatutako bi autobus %100 elektriko berriek 12 metroko luzera dute eta energiaren erabilera optimizatzeko helburuarekin diseinatu dira, Dbusek dituen hiriko autobusen prestazioei eutsita eta hobetuta. Ibilgailu horiek isilak dira eta ez dute kutsatzailearik igortzen eguratsera, eta 200 kilometro baino gehiagoko autonomia lortzea espero da beraiekin.

6 EMV BANKU TXARTELEKIN ORDAINTZEKO PROIEKTU PILOTUA

2017ko abuztuaz geroztik, Dbuseko 16-Igeldo linean eta 45-Estaciones Renfe-Bus Geltokiak-Antigua-Aiete linean banku txartelarekin ordaindu daitezke jada autobuseko bidaiak. Dbusek GEKOIN INGENIEROSekin eta Banco Santanderrekin batera garatutako proiektu pilotu bat da, zeinak bidai txartela **kontakturik gabeko Visa, Mastercard eta American Express kreditu txartelekin eta zordunketa txartelekin (EMV)** eta mugikorretako aplikazio batzuekin ordaintzen uzten baitu.

Horrela, erabiltzaileei autobusera igotzea errazten zaie eta ibilgailuen efizientzia eta abiadura komertziala hobetzen da. Garraio publikoko **sistema teknologiko berritzailea** da eta beste hiri batzuetan ere erabiltzen ari da, hala nola Londresen edo Madrilen. Aurreikusten da **proiektu pilotuak 2018ko uda amaiera arte iraungo duela**, eta MUGI txartelekin ordaintzeko sistemaren osagarria da.

2017ko abuztuan proiektu pilotua hasi zenetik urte amaierara arte 4.143 bidaia ordaindu ziren EMV kontakturik gabeko banku txartelekin 16 eta 45 lineetan. Datu horiek baieztatzen dutenez, proiektu pilotua **arrakastatsua izaten ari da erabilerari dagokionez**, Madrilen 2017aren lehen seihilekoan egin zen antzeko proiektu pilotu batean egon ziren emaitzen baino **hiru aldiz handiagoak** izan baitira.



7 DBUSEN APPAREN BERTSIO BERRIA

2017aren erdialdean, Dbusek bere app ofizialaren bertsio berri bat kaleratu zuen smartphoneetarako. Bertsio berriak **hobekuntza ugari eta funtzionaltasun berriak ditu**, eta aldaketa horiek denek bere funtzionamendua optimizatzen dute eta zerbitzu berriak eskaini, nabigazioa errazagoa, azkarragoa eta intuitiboa izan dadin.

Egindako hobekuntzen artean nabarmentzen dira autobusaren **iritsiera jakinarazteko alerten** konfigurazioa, **Mugi txartela kargatzeko gunera** zuzenean iristeko aukera eta linea bakoitzaren ordutegi eta ibilbideen gaineko **informazio zehatzagoa** edukitzea.

Appa **iOS, Android eta Windows Phone bertsioetan** dago, eta donostiarrek gehien erabiltzen duten udal aplikazioetako bat da, 68.600 deskarga baino gehiago ditu eta.



8 HIRITARREN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTA

Urrian, Donostiako Udalak Hiritarren Pertzepzioen gaineko Inkestaren emaitzaren berri eman zuen. Inkesta hiriaren 2020ko Plan Estrategikoaren jarraipenerako lanetako bat izan da. Inkestaren ondorioa izan da Donostiako hiritarrak oso pozik daudela hiriko bizimoduarekin; izan ere, 8,75 puntu eman diote hiriko bizimoduari, 10 puntutik. **Garraio publikoa** izan da donostiarrek **hoberen baloratutako alderdietako bat**, 7,7ko puntuazio eman baitiote. Hiritarren ustez, zerbitzurik hoberena da hiriko azpiegituren eta ekipamenduen atalean.



Hiriak eta hiriaren perspektibek eta erronkek biztanleengan zer sentimendu sortarazten duten aztertzeke balio du inkestak. Era berean, aurretik egin diren inkestekin alderatuta hiritarren balorazioan egon den aldaketa ikusteko ere balio du (2005 eta 2008).

9 KOTXETEGIAK ZABALTZEA

2017ko maiatzean Gobernu Batzordeak Kotxetegiak handitzeko proiektua onartu zuen. Handitze lan horrekin irtenbidea ematen zaio azken urteetan autobus lineen zerbitzuetan eta maiztasunetan egin diren hobekuntzei erantzuteko Dbusek duen gero eta flota zabalagoaren leku premiari.

Kotxetegiaren alboko lursailean egingo dira zabaltze lanak, eta autobusetarako **26 plaza berri eta langileen ibilgailuetarako beste 58 toki gehiago** prestatuko dira bertan.

Dbusen instalazio berrien azalera 6.818 m² ingurukoa izango da. Aparkalekua aire zabalean egongo da erabat eta zabaltzako egungo aparkalekuaren ezaugarri berberak izango ditu. Estalpean zeharkatzea ahalbidetuko duen teilape perimetrala, zarataren aurkako pantailak, fokuak eta kamerak izango ditu. Eraiki ahal izateko, beharrezkoa izango da Mons pasealekua eta Fernando Sasiain kalea banatzen dituen bidea metro batzuk beherago eramatea; izan ere, gaur egungoa Dbusen instalazioen barruan geratuko litzateke eta barneko erabilerarako balioko luke.





10 BESTE JARDUKETA BATZUK

Hobekuntzak Uliako Taxibusean

2017an, zerbitzua erreserbatzeko gutxieneko denbora tarte murriztu da, 60 minututik 30 minutura, eta bost minutu aurreratu dira Kolon pasealekuko autobus irteerak, Uliako bizilagunek eta ohiko erabiltzaileek zerbitzua erosoagoa izateko egiten zituzten eskaerei erantzuteko.




Gaeko autobusak erabiltzera bultzatzeko kanpaina

Puntu kritikoen maparen proiektuaren baitan, Dbusek eta Donostiako Udalaren Berdintasun Departamentuak garraio publikoaren erabilera sustatzeko kanpaina bat abiarazi dute batera udan, etxera itzultzeko modu seguruagoa den heinean.



ATUC

Azaroaren 27 eta 28an Dbuseko instalazioetan elkartu da ATUC Espainiako garraio operadoreen elkarte nagusiaren Teknologia Berriak, Marketina eta Kalitatea Batzordea. Jardunaldi hauetan hainbat hiritako **21 garraio operadorek** parte hartu dute, hala nola Madril,artzelona, Valentzia, Sevilla, Palma edo Tenerifekoek, bai eta garraio publikoarekin lotura duten enpresa teknologiko batzuek ere.




“Dbus eta Gabonak” Haurrentzako XI. Marrazki Lehiaketa

11. urtez jarraian Dbusek Gabonetako marrazki lehiaketa antolatu zuen haurrentzat, San Martin azokarekin batera. Neska-mutikoen sormena sustatzeaz gain, lehiaketaren asmoa da **Donostian garraio publikoa erabiltzeak duen garrantziaz ohartaraztea**, Donostiako hiri guneen eta donostiarren bizi kalitatearen iraunkortasuna bermatzeko balio baitu.



Zerbitzu bereziak autobusetan eta **ordutegiak indartzea**, Donostian egiten diren ekitaldi garrantzitsuenetan:

- San Sebastian bezpera
- Iñauteriak
- Jazzaldia
- Aste Nagusia
- Etab.



7170151



672

MAN



d.bus

1980 FFY-SP